

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

800.000 euro baino gehiagoko laguntza-deialdia egin da ikerketa eta teknologia arloetako langileak kontratatzeko

Nafarroan I+G proiektuak egiten dituzten enpresek, teknologia-zentroek, ikerketa-erakundeek, unibertsitateek eta sozietate publikoek eska ditzakete, uztailaren 20ra arte

Asteartea, 2017.eko ekainak 27

Garapen Ekonomikorako Departamentuak 829.488 euroko [laguntza-deialdia](#) egin du ikerketaren eta teknologiaren arloetan lan egiteko pertsonen kontratazioa finantzatzeko, Nafarroako enpresek, teknologia-zentroek, ikerketa-erakundeek, unibertsitateek eta sozietate publikoek garatutako I+G+b proiektuetan prestakuntza hobe dezaten.

Onuradunek uztailaren 20a baino lehen aurkeztu behar dituzte eskaerak, www.navarra.es webgunean. Kontratuek, gutxienez, 12 hilabetekoak izan beharko dute, lanaldi osokoak, eta ez dira finantzatuko aurreko kontratuen luzapenak.

Diruz lagun daitekeen gastua kontratatutako pertsonaren soldata-kostuen ehuneko bat izango da, Gizarte Segurantzaren ekarpenak barne hartuta. Deialdiaren oinarriak [berriki argitaratu](#) dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta gehieneko kopurua ezartzen dute, entitate onuradunaren eta kontratatutako pertsonaren titulazioaren arabera.

Diru-laguntzak norgehiagokaren bidez emango dira, hau da, jasotako eskaerak alderatuko dira, irizpide hauei jarraituz: proiektuaren eragin teknologikoa, berritasun maila, aurrekontuaren justifikazioa, txostenaren kalitatea, kontratazio-plana, Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren (S3) sektoreetara egokitzen den, eta aurreko deialdietatik etorritako pertsonak kontratatzea.